

EHU2025 (PIF) EHU-N PRESTATZEN ARI DIREN IKERTZAILEAK KONTRATATZEKO DEIALDIA

Ohiko galderak (FAQak) 2025/06/17an eguneratua

GARRANTZITSUA: *Eskaeren kopurua dela eta, Ikerketa Errektoreordetzako (aurrerantzean VRI) langileekin harremanetan jarri aurretik, ohiko galderen zerrenda hau kontsultatzea eskatzen da.*

Zure kontsultari erantzunik aurkitzen ez badiozu, eskatzaileek solicitudes-pif.dgi@ehu.eus, postaren gaian "PIF EHU 2025" adieraziz.

Kontsulta guztiei erantzun ahal izateko, helbide elektroniko honetara bakarrik jo behar da.

Edukia

ERREGISTROA	4
Noiz bukatzen da eskabidea egiteko epea?	4
Erregistro elektroniko orokorra (EEO) egiteko moduari buruzko tutoretza-bideoa:.....	4
EHUTB - SOLICITUD DE REGISTRO ELECTRÓNICO ¡Error! Marcador no definido.	
Identifikatzeko eta sinatzeko bideak: Egoitza elektronikoa - UPV/EHU - ehueus	4
Beste tutoretza-bideo interesgarri batzuk:	4
-EHUTB - EGOITZA ELEKTRONIKOA 1	4
-EHUTB - ALTA PERSONA INTERESADA Y ALTA REPRESENTANTE	4
-EHUTB - MI CARPETA	4
-EHUTB - CATALOGO DE PROCEDIMIENTOS	4
Presentzia-erregistroaren arloko bulegoak:.....	4
BAKQ gunek:Egoitza elektronikoa - UPV/EHU - ehueus	4
Aurkez al dezaket nire eskaera aplikazio edo posta elektroniko bidez?	4
Beharrezkoa al da masterraren ziurtagiri akademikoa aurkeztea?	5
Nire eskaera aurkez dezaket oraindik masterreko ikasketak hasi ez baditut?	5
Doktoregorako sarbidea ematen duen titulazio bat baino gehiago badut, 2 titulazioetatik zein baloratzen da eskabidean?.....	5
2 urteko master bat egiten ari naiz eta lehen mailan nago eta data horietarako 60 kreditu izango nituzke. Beka eskura dezaket?	5



Gradu-/master-titulua lortu dut Europan. Beharrezkoa al da titulu homologatua izatea UPV/EHU doktorego-programa batean matrikulatu ahal izateko?	5
DOKTOREGO PROGRAMA	5
Derrigorrezkoa al da doktorego-programan aurrez izena ematea 2025ean?	5
Zer gertatzen da doktorego eskolako matrikula ordaintzen badut eta ondoren laguntza ukatzen badirate edota matrikula baliogabetzea?	5
Noiz hasten da doktorego programan aurreinskripzioa egiteko epea?	6
HIZKUNTZAK:	6
Euskara jakitea ezinbestekoa al da deialdi honetan parte hartzeko?.....	6
ATXIKIPEN ZENTROA:	6
¿Telelana eska daiteke?.....	6
ATZERRIKO EGONALDIA.....	6
Zenbat hilabetez finantzatzen du laguntza atzerriko egonaldiak?	6
Zenbat hilabetez finantzatzen du laguntza atzerriko egonaldiak?	6
TESI-ZUZENDARIAK	7
Zuzendari desberdinak hauta ditzaket deialdi honetako modalitate bakoitzean parte hartzeko?	7
Zuzendari berak eskaera bat baino gehiago abala al ditzake deialdi honetan?.....	7
Nola egiazta dezaket nire tesi-zuzendarietako batek lanaldi osoko kontratu bat duela UPV/EHUrekin eta defendatu den doktorego-tesi bat baino ez duela zuzendu?	7
ESKABIDE-ORRIA	7
Nola lehenetsi I. eta II. modalitateak formularioan:	7
Zein formatutan eta hizkuntzatan aurkeztu behar dut eskabide-orria?	7
Zein formatu eta hizkuntzatan aurkeztu behar dut memoria?.....	8
Zein formatu eta hizkuntzatan aurkeztu behar dut CVa?.....	8
Memoria-eredu bera al da 4 modalitateetarako?.....	8
Deialdian adierazten da euskarazko eskaerak gaztelaniara itzuliko direla. Nire itzulpena aurkez dezaket?.....	8
PROIEKTUAREN MEMORIA	8



DEIALDIA IZAPIDETZEA.....	9
---------------------------	---

Nola jakinaraziko zaie eskatzaileei ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskaeren behin-behineko zerrenda argitaratu dela?	9
---	---



ERREGISTROA

Noiz bukatzen da eskabidea egiteko epea?

2025eko ekianaren 30ean 23:59.

Erregistro elektronikoa orokorra (EEO) egiteko moduari buruzko tutoretza-bideoa:

<https://ehutb.ehu.eus/video/682c2e18af1923e3387853e9>

Identifikatzeko eta sinatzeko bideak:

https://egoitza.ehu.eus/opencms/system/modules/sede/contents/sobrelasede/identificacion_firma?lang=eu

- Bakq
- Izenpe Mobile
- Certificados electrónicos

Beste tutoretza-bideo interesgarri batzuk:

- EGOITZA ELEKTRONIKOA:

<https://ehutb.ehu.eus/video/67ee30a3af1923c7874b94f7>

- INTERESDUNAREN ALTA ETA ORDEZKARIAREN ALTA:

<https://ehutb.ehu.eus/video/6825873caf192393e95e9009>

- NIRE KARPETA: <https://ehutb.ehu.eus/video/6824854aaf19238ec12fb1e9>

- PROZEDUREN KATALOGOA:

<https://ehutb.ehu.eus/video/67fccdc2af192372e85dddb2>

Presentzia-erregistroaren arloko bulegoak:

https://egoitza-pre.ehu.eus/opencms/system/modules/sede/contents/ayuda/atencion_oficinas_registro?lang=eu

BAKQ guneak: https://egoitza-pre.ehu.eus/opencms/system/modules/sede/contents/ayuda/atencion_oficinas_registro?lang=eu

[pre.ehu.eus/opencms/system/modules/sede/contents/ayuda/atencion_oficinas_registro?lang=eu](https://egoitza-pre.ehu.eus/opencms/system/modules/sede/contents/ayuda/atencion_oficinas_registro?lang=eu)

- UPV/EHU LEIOA Errektoretza; Barrio Sarriena s/n 48940 Leioa (Bizkaia).
- UPV/EHU SARRIKO Larrako etxea; Lehendakari Aguirre 83 48015 Bilbao (Bizkaia).
- UPV/EHU Arabako Campuseko errektoreordetza; Comandante Izarduy, 2 01005 (Gasteiz).
- UPV/EHU Gipuzkoako Akademia kudeaketa zentroan; Ignacio M^a Barriola Elhuyar plaza, 1- 1. solairua 20018 (Donostia)

Aurkez al dezaket nire eskaera aplikazio edo posta elektronikoa bidez?

Ez. Salbuespen gisa, eta Espainiako lurraldean bizi ez diren hautagaiek soilik aurkeztu ahal izango dute eskabidea posta elektronikoz, deialdiaren 6.2 oinarrian eskatutako dokumentazio guztia, PDF formatuan, honako helbide honetara bidaliz: solicitudes-pif.dgi@ehu.eus gaian "PREDOC 2025" adierazita (6.1 oinarria).



Beharrezkoa al da masterraren ziurtagiri akademikoa aurkeztea?

Doktoregora sartzeko behar den ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko da, 3.1a oinarriaren arabera, UPV/EHUUn egindako titulazioetarako izan ezik.

Nire eskaera aurkez dezaket oraindik masterreko ikasketak hasi ez baditut?

Ez, zure graduiko ikasketek doktoretzarako sarbide zuzena ematen badute izan ezik.

Doktoregorako sarbidea ematen duen titulazio bat baino gehiago badut, 2 titulazioetatik zein baloratzen da eskabidean?

Daten ondorioetarako, doktoregorako sarbidea ematen duen lehen titulazioa hartuko da kontuan (3.1.a oinarria).

2 urteko master bat egiten ari naiz eta lehen mailan nago eta data horietarako 60 kreditu izango nituzke. Beka eskura dezaket?

Ez, masterra amaituta eduki behar da.

Gradu-/master-titulua lortu dut European. Beharrezkoa al da titulu homologatua izatea UPV/EHU doktorego-programa batean matrikulatu ahal izateko?

Deialdi honetan ez da baldintza bat titulua homologatuta egotea, baina BAI doktorego-programa batean matrikulatuta egotea kontratazioa formalizatzeko egunean (6.2.c oinarria).

<https://www.ehu.eus/es/web/doktoregoa/titulos-y-tramites/equivalencia-de-titulos-extranjeros/legalizacion-de-documentos>

DOKTOREGO PROGRAMA

Derrigorrezkoa al da doktorego-programan aurrez izena ematea 2025ean?

Bai

Zer gertatzen da doktorego eskolako matrikula ordaintzen badut eta ondoren laguntza ukatzen badidate edota matrikula baliogabetzea?

<https://www.ehu.eus/eu/web/doktoregoa/araudia/upv-ehuren-araudia/doktorego-ikasketa-ofizialen-gestiorako-araudia-2024ko-apirilaren-25ekoa> 8. Artikuluan 7. Atalean. Azaltzen du zein kasutan itzuliko diren ordaindutako prezio publikoak.

Nola egin dezaket aurretiko izen-ematea doktorego programa batean?

(3.1.c oinarria) Doktorego Eskolarekin harremanetan jartzeko, doke@ehu.eus helbidera idatz dezakezu, edo argibideak kontsultatu haren webgunean:

<https://www.ehu.eus/eu/web/doktorego-eskola/doktoregoa>

Eskabidea aurkezteko unean doktorego-programan matrikulatuta nagoela egiaztatu behar al dut?

Ez. Doktorego-programan aurrez izena emanda dagoela egiaztatu behar da (3.1.c oinarria).

Zein dokumentuk egiaztatzen du doktorego-programan aurrez izena eman dela?

Aurreinskripzioaren ziurtagiria. UPV/EHUko doktorego-programan aurrez izena emateko, esteka honetara jo behar da:



https://www.ehu.eus/es/web/doktorego-eskola/doctorado-preinscripcion-admision?gad_source=1&gclid=EAlaIQobChMIjZTo4eW0hgMVfZCDBx21mShsEAAYASAAEgJ8DvD_BwE (6.2.c Oinarria)

Noiz hasten da doktorego programan aurreinskripzioa egiteko epea?

Epea 2025/06/23an irekiko da

<https://www.ehu.eus/es/web/doktoregoa/matricula/calendario-matricula>

HIZKUNTZAK:

Euskara jakitea ezinbestekoa al da deialdi honetan parte hartzeko?

II. MODALITATEAN parte hartzeko C1 baldintza da, eta GAINERAKO MODALITATEETAN merezimendu gisa jasotzen da.

ATXIKIPEN ZENTROA:

Eska al daiteke laguntza hori tesia egiteko UPV/EHUKoa ez den zentro batean, hala nola unibertsitateaz kanpoko enpresa edo ikerketa-zentro batean?

Ez. Atxikitako institutuen zerrenda kontsulta dezakezu esteka honetan:

<https://www.ehu.eus/es/web/ikerkuntza/institutuak>

¿Telelana eska daiteke?

Ez, sinatutako lan-kontratuak atxikipen-zentroaren instalazioetan lan egitera behartzen du interesduna.

Parte har al dezaket deialdian lizentziaturaren espediente akademikoan edo doktoregora sartzeko 6,5 puntu baino gutxiagoko titulu gisa aurkeztutako gradu-espedientearen batez besteko nota badut?

Batez besteko nota 6.5 puntutik beherakoa duten titulazioen kasuan, mozteko nota 6 puntura jaitsiko da batez besteko nota 6,5 puntutik beherakoa duten titulazioen kasuan, 2. eranskinetako datuen arabera (3.1.b oinarria).

III. eta IV. modalitateetan, espainiar nazionalitatea badut eta frantseseko ezagutza-ziurtagiria aurkeztu badut, zein irizpideren arabera baloratzen da ziurtagiri hori?

Ez da baloratu deialdiaren 7.1 oinarriko 4. irizpidearen arabera.

ATZERRIKO EGONALDIA

Zenbat hilabetez finantzatzen du laguntza atzerriko egonaldiak?

Deialdian ezarritako gutxienezko finantzatuko da (3 hilabete), egonaldiaren iraupena luzeagoa izan arren (5.4 oinarria).

Zenbat hilabetez finantzatzen du laguntza atzerriko egonaldiak?

5.4 oinarriaren arabera, egonaldia doktoratu aurreko kontratuaren lehen hiru urteetan egin beharko



da, eta nazioarteko doktorego-aipamena lortzera bideratuta egongo da. III. eta IV. modalitateen kasuan, tutoretza partekatua ez den beste herrialde batean egin beharko da egonaldia.

Onuradunak ikerketa-egonaldia egin badu bakarrik luzatuko da laugarren urtea.

TESI-ZUZENDARIAK

Zenbat tesi-zuzendarik balia dezakete nire eskaera?

Deialdiaren 4. oinarriaren arabera:

- I. eta II. modalitateen kasuan zuzendari 1etik 3ra izan ahalko dituzte, baina derrigorrezkoa da batek UPV/EHurekiko kontratu lotura, funtzionarial zein lan lotura, eskaria agertzeko unetik eta laguntza gauatzeko tarte edo epe osoan zehar
- III. eta IV. modalitateen kasuan 2 tesi-zuzendari gehienez. Kasu horietan, pertsona batek UPV/EHUko kide izan beharko du nahitaez, eta besteak, berriz, dagokion tutorekidetzako unibertsitatekoa.

Zuzendari desberdinak hauta ditzaket deialdi honetako modalitate bakoitzean parte hartzeko?

Ez, eskaera bakarra baita eta ez baitago horretarako aukerarik.

Zuzendari berak eskaera bat baino gehiago abala al ditzake deialdi honetan?

Ez. Tesi-zuzendariek ezingo dute deialdi honetan eskaera bat baino gehiago abalatu. (4.2 oinarria)

Nola egiazta dezaket nire tesi-zuzendarietako batek lanaldi osoko kontratu bat duela UPV/EHurekin eta defendatu den doktorego-tesi bat baino ez duela zuzendu?

Ez da beharrezkoa izango eskatutakoaz gain beste agiririk aurkeztea, ofizioz egiaztatuko baita.

ESKABIDE-ORRIA

Nola lehenetsi I. eta II. modalitateak formularioan:

MODALITATEA /MODALIDAD (aukera hauetako bat bakarrik hautatu behar duzu / debe seleccionar solo una de las siguientes opciones)	
I. Modalitatea , soilik / Modalidad I , exclusivamente	☐
II. Modalitatea , soilik / Modalidad II , exclusivamente	☐
Bi modalitateak, I. Modalitateari lehentasuna emanda. Ambas modalidades, con prioridad a la Modalidad I	☐
Bi modalitateak, II. Modalitateari lehentasuna emanda. Ambas modalidades, con prioridad a la Modalidad II	☐

Zein formatutan eta hizkuntzatan aurkeztu behar dut eskabide-orria?

Inprimakia PDF formatuan aurkeztuko da, ahal dela ingelesez, baina EAEko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan ere aurkeztu ahal izango da, euskaraz eta gaztelaniaz.



Zein formatu eta hizkuntzatan aurkeztu behar dut memoria?

Memoria PDF formatuan aurkeztuko da, ahal dela ingelesez, baina EAEko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan ere aurkeztu ahal izango da: euskaraz eta gaztelaniaz.

6.2.b oinarriaren arabera, II modalitatearen kasuan, memoria euskaraz aurkeztu beharko da 7.1 oinarriko 5. atalean aipatutako puntuazioa lortu ahal izateko.

Zein formatu eta hizkuntzatan aurkeztu behar dut CVA?

Curriculum Vitae Normalizatua (CVA) aurkeztu beharko da PDF formatuan eta ingelesez. 3 formatuetako edozein izan daiteke: ANECA, ISCIII eta AEI. Helburua zerbait laburtua izatea da, eta nahi diren atalak gehi daitezke. Izan ere, gure deialdiak berariaz dio CV ebaluatuko denari egokitzen saiatu behar dutela.

Memoria-eredu bera al da 4 modalitateetarako?

Bai.

Deialdian adierazten da euskarazko eskaerak gaztelaniara itzuliko direla. Nire itzulpena aurkez dezaket?

Bai.

Zein kasutan aurkeztu behar da ANECAREN batez besteko notaren ziurtagiria?

Eskatzaileak ikasketak zati batean edo osorik atzerrian egin baditu. ikasketak atzerrian egin dituzten eskatzaileei espediente akademikoaren batez besteko nota hartuko zaie kontuan, bai Espainiako Gobernuak Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak igorritako «Batez besteko notaren baliokidetasun-adierazpenean» agertzen dena, bai ANECAREN ziurtagiri ofizialean agertzen dena.

<https://www.ciencia.gob.es/eu/Universidades/NotaMedia.html>

PROIEKTUAREN MEMORIA

Nahitaez markatu behar al dut GIH bat?

Nahitaez markatu behar da, GUTXIENEZ, GIH bat, planteatzen den proiektuarekiko harreman-mailaren arabera.

1. adibidea: Nire proiektuarekin lotura handiena duen **GIHa ODS1 da, eta, neurri txikiagoan, ODS4**. Nola adierazten dut proiektuaren memorian?

GIH-zbkia/Nº-ODS	IZENBURUA/-TÍTULO	LEHENESTE-MAILA-PRIORIZACIÓN
1.-GIH/ODS-1	POBREZIA-DESAGERTZEA/-FIN-DE-LA-POBREZA	1
2.-GIH/ODS-2	GOSERIK-EZ-IZATEA/-HAMBRE	
3.-GIH/ODS-3	OSASUNA-ETA-ONGIZATEA/-SALUD-Y-BIENESTAR	
4.-GIH/ODS-4	KALITATE-ONEKO-HEZKUNTZA/-EDUCACION-DE-CALIDAD	2

2. adibidea: Nire proiektuarekin lotura handiena duen **GIHa ODS1 da, eta, neurri txikiagoan, ODS4 eta ODS7**. Nola adierazten dut proiektuaren memorian?



GIH-zbkia/Nº-ODS	IZENBURUA/-TITULO	LEHENESTE-MAILA-PRIORIZACIÓN
1.GIH/ODS-1	POBREZIA-DESAGERTZE/-FIN-DE-LA-POBREZA	1
2.GIH/ODS-2	GOSERIK-EZ-IZATE/-HAMBRE	
3.GIH/ODS-3	OSASUNA-ETA-ONGIZATE/-SALUD-Y-BIENESTAR	
4.GIH/ODS-4	KALITATE-ONEKO-HEZKUNTZA/-EDUCACIÓN-DE-CALIDAD	2
5.GIH/ODS-5	GENERO-BERDINTASUNA/-IGUALDAD-DE-GENERO	
6.GIH/ODS-6	EDATEKO-URA-ETA-SANEAMENDUA/-AGUA-LIMPIA-Y-SANEAMIENTO	
7.GIH/ODS-7	ENERGIA-ESKURAGARRI-ETA-EZ-KUTSATZAILE/- ENERGÍA-ASEQUIBLE-Y-NO-CONTAMINANTE	3
8.GIH/ODS-8	LAN-DUINA-ETA-HAZKUNDE-EKONOMIKOA/- L	

DEIALDIA IZAPIDETZE

Nola jakinaraziko zaie eskatzaileei ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskaeren behin-behineko zerrenda argitaratu dela?

VRIk posta elektroniko bidez jakinaraziko die eskatzaileei eskabide-inprimakian adierazitako harremanetarako helbidera.

Hala ere, zerrenda webgunean argitaratzeak jakinarazpen-ondorio guztiak izango ditu, eta, beraz, VRI ez da arduratuko mezu elektroniko horiek ez jasotzeaz, eta eskatzaileak aldian-aldian egiaztatu beharko du esteka honetan deialdiari buruzko informazio berria argitaratu dela: <https://www.ehu.eus/eu/web/ikerketaren-kudeaketa/-/pif-upv/ehu-2025>